

ZALDIBARKO ESKOLAKO AGENDA 21AREN

BIGARREN FOROA

2007ko ekainaren 8an

PARTE HARTZAILEAK

- Zaldibarko Udala: Nerea Garitagoitia (Zinegotzia)
- Zaldibarko Eskola: Irakasleak, ikasleak eta ama bat.
- Ingurugela: Joseba Etxebarria (Teknikaria)
- Durangoko Merinaldeko Amankomuazgoa: Ismene Mandaluniz (Durangaldeko Udaltalde 21eko Teknikaria)

GAI ORDENA

- 1.- Ongietorria eta sarrera
- 2.- Ikasturtean zehar egindakoaren azalpena
- 3.- Udalari eskutzitza
- 4.- Urteko lanaren ebaluaketa
- 5.-Erantzunak, eskerrak eta agurra

AZALDUTAKO EDUKIAK ETA HARTUTAKO ERABAKIAK

Lehenengoa.- ONGIETORRIA ETA SARRERA

Zaldibarko zinegotzia den Nereak eskolako bigarren forora aurreratutako guztiei ongietorria eman die.

Gaur egungo ahiturekin jarraitzen badugu mundu asko behar izango ditugula bizitzeko azaldu du baina mundu bakarra daukagula. Eskuekin egindako joko batekin ohiturak aldatze posible dela adierazi die, nahiz eta hasieran kostatu.

Bigarrena.- IKASTURTEAN ZEHAR EGINDAKOAREN AZALPENA

Hau da irakurri den textua:

Nik, aurten egin duguna azalduko dizuet eta gero nire kideek, hartu ditugun konpromisoak irakurriko dituzte.

Hasieran SENSIBILIZAZIO KANPAINA egin dugu:

Jendearengan gogoak pizteko, etxeetara, gurasoei idatzi bat bidali zen parte hartzen animatzen. Ikasleek ere jaso genuen eta batzuk animatu ginen. Apuntatu ginenen artean zozketa bat egin zen eta batzordeko ikasleak aukeratu ziren (gu laurok).

Gurasoak ez ziren aurkeztu eta horregaitik ez dute izan batzordean ordezkorik. Orain boluntario bat Justi Alfaro daukagu datorren urterako.

Sensibilizazio kanpainarekin jarraitzeko, letrekin inguruari buruz eskolatik mezuak eta esaldiak ipini genituen jakin mina sortzeko.

Ikasleen laguntzarekin TXOKO BERDEA sortu genuen bitxikeriak, informazioa, argazkiak, aldizkariak..... ipintzeko.

Hurrengo pausua ESKOLAKO eta NORBERAREN aztarna ekologikoa ateratzea izan da. Hau norberak bere burua aztertzeko eta gure beharrak ezagutzeko egin dugu. Orduan, holan jarraitu

ezkero, gure planeta hondatuko dela asko gastatzen dugulako edo ahal dugun baino zati handiagoa gastatzen dugula ikusi dugu.

Hau dela eta erabaki batzuk hartu ditugu eskola mailan gastua edo kontsumoa murrizteko eta gastatzen dugun energia hobeto kudeatzeko.

Nire aldetik hau izan da dena. Orain Hodeik eta Gorkak lehen aipatu dudana irakurriko dute. Hau da : Udaletxeari luzatzen dizkiogun eskaera eta proposamenak. Eta amaitzeko Janirek amaiera emango dio gure azalpenari.

Hirugarrena.- UDALARI ESKUTITZA

Alkate Jauna:

Gu, CP Zaldibar LHI ikastetxearen Eskola Agenda 21eko batzordeko ikasleek, ikasturtean zehar eskola hobetzeko nahian, gure geletako kideekin batera erabaki batzuk hartu ditugu.

Aurreko Foroan gelditu ginen bezala, norberaren diagnostikoa eta eskolako egin eta gero, ondorio batzuk atera ditugu eta, gure eskola hobetzeko hau eskatzen dizuegu:

- Patioan eta kiroldegian orain dauden zakarrontzi ondoan beste batzuk ipini plastikoa, hau da: yogur poteak, actimel poteak birziklatzeko.
- Haur Hezkuntzako jolastoki ondoan dauden kontainerrak lekuz aldatzea kiratsa botatzen dutelako.
- Pilak eta erropak birziklatzeko, kontainer bereziak herritik jartzea.
- Eskolako komunetan automatikoak ez diren txorrotak aldatu, ur gutxiago gastatzeko.

Gure aldetik eskolan konpromisu batzuk hartu ditugu eta zuentzako udaletxean ere hartzeko gokiak ikusten ditugu:

- Uraren gastua kontrolatuko dugu.
- Argiaren kontsumoa ere kontrolatuko dugu.
- Paper birziklatua erabiltzen hasiko gara.
- Fotokopiak alde bietatik aterako ditugu.
- Pilak, CDak, Papera eta Plastikoa birziklatuko ditugu.
- Etxean erabiltzen ez ditugun jostailuak Haur Hezkuntzako ikasleei ekarriko dizkiegu, beraiek erabiltzeko

Laugarrena.- URTEKO LANAREN EBALUAKETA

Nik, Eskolako Agenda 21eko urte hau lana aldetik lasaia izan dela esan behar dut Agian lehenengo urtea izan delako. Badakigu datorrena gogorragoa izando dela eta lan gehiago egin beharko dugula.

Adibidez gure TXOKO BERDEARI ez diogu etekin handirik atera eta hurrengoan hor ekitea pentsatu dugu

Batzordeko ikasleek geletatik informazioa zabalduko dute beste guztiek kontenedoreen erabilera eta beste gauzen funtzionamendua uler ditzaten.

Datorren urteari begira proposatzen dizkiguten ekintzetan gustura hartuko dugu parte.

Gure aldetik pozik gaude egin dugun lanarekin eta lortu dugun kontzientzia mailarekin.

Zuek ere berdin egotea espero dugu Holan amaitzen dugu eta besterik gabe datorren ikasturtean berriro elkartuko gara.

Bostgarrena.- ERANTZUNAK, ESKERRAK ETA AGURRA

Eskaerei emandako erantzunak:

- Dirulaguntza eskatuko da patioan zakarrontziak jartzeko
- Kontainer handiak lekuz aldatzeko arazoa dago kamioiak ezin baitu edonon jarri. Dena den, urbanizazio berria egiterakoan lurperatu egingo dira.
- Pilak biltzeko kontenedorea hiru tokitan dago: Bekoetxe, liburutegi eta S. Andresen. Eskolan ere jarriko dira
- Arropak biltzeko karitasekin egiten dira kanpainak baina badago kontenedore hauek instalatzeko asmoa
- Ura aurrezteko ahotxoak bananduko dira Udalaren eskutik eta ikastetxean jartzeko posibilitatea izango da.

Ama batek hobetu beharreko pare bat puntu adierazi ditu:

- Polikiroldegi atzean dagoen negutegia probetxatzeko proiekturen bat dagoen galdetu du
- Patioan dauden ur putzuak ea konpondu daitezkeen

Nereak parte hartzearren eskerrak eman eta datorren urterako deialdia egin die.